

## 2/2021 LEGE DEKRETUARI BURUZKO OHIKO GALDERAK

- 1. Ezinbesteko ABEEE bat onartuta duen enpresa baten jarduerari eragiten dioten osasun-arau berriak ematen direnean, dela eragozpenagatik, dela mugapenagatik, eta egoera batetik bestera igaro behar duenean, beste ABEEE bat izapidetu behar al du?**

Ez. Enplegu-erregulazioko aplikazioaren espedientean ([Nire Karpeta](#)) agertzen diren egokitzapen-botoiak erabili behar ditu, eta jarraibideak bete. Jarraibideetan adierazten zaio soilik honako hauek jakinarazi behar dituela:

- Gertatutako egoera-aldaketa
- Aldaketa horren ondorio-data
- Aldaketa horrek eragindako zentroak
- Aldaketa horrek eragindako langileak

- 2. Aurreko kasuan, ez badira botoiak agertzen, zer egin behar da?**

Botoiak agertzen ez bazaizkizu, zure lurraldeko Laneko Lurralde Ordezkaritzarekin edo Lakuako Lan Zuzendaritzarekin jarri behar duzu harremanetan. Han, zergatia aztertuko dute eta irtenbide bat emango dizute.

- 3. Mota bateko ERTE bati uko egin behar zaio beste mota bateko ABEEE bat eskatzeko?**

Ez.

#### **4. Noiz arte dago aurreikusita Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuestea?**

Arau berriak agertzen ez badira, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuak ezartzen du COVID-19rekin lotutako ezinbesteko kausa batean oinarritutako ABEEE guztiak luzatuko direla:

- 2021eko maiatzaren 31ra arte:
  - ✓ Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan araututako ABEEEak.
  - ✓ Ezinbesteko ABEEEak, jardueraren garapen normalizatua mugatzeko, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Amaitu arte, baiespen-ebazpenaren arabera:
  - ✓ Ezinbesteko ABEEEak, jarduera eragozten dutelako irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan eta ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

#### **5. Baldin eta enpresa bat ABEEE eragozpen edo mugapen egoeran badago eta ez aplikatzea erabakitzen badu bere EJSN 2/2021 Errege Lege Dekretuaren eranskinean sartuta dagoelako (ostalaritza, kasu), Gizarte Segurantzaren kuotetan salbuespen gehiago aurreikusten dituen lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren eta bereziki eraginpean dauden enpresei dagokienez, izapidereen bat egin behar al du Lan Agintaritzan? Edo, gutxienez, jakinarazi behar al du?**

Ez. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin harremanetan jarri eta izapideak egin behar ditu.